



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko uztailaren 26a

90. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Kontseiluaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontseiluaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Kontseiluaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-22/CCO-00008).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Kontseiluaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Nafarroako Kontseilua (4. or.).

**III.** Helburuak eta norainokoa (5. or.).

**IV.** Iritzia (6. or.).

IV.1. Finantza-auditoretzako iritzia (7. or.).

IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia (7. or.).

**V.** Nafarroako Kontseiluaren 2021eko urteko kontuen laburpena (8. or.).

V.1. 2021eko aurrekontuaren likidazioa (8. or.).

V.2. 2021eko aurrekontu-emaitza (8. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakina 2021eko abenduaren 31n (9. or.).

V.4. 2021eko abenduaren 31ko balantzea (9. or.).

V.5. 2021eko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (10. or.).

V.6. 2021eko ondare garbian izandako aldateten egoera-orria (10. or.).

V.7. 2021eko eskudiru-fluxuen egoera-orria (10. or.).

**VI.** Konklusioak eta gomendioak (11. or.).

VI.1. Aurrekontuaren likidazioa (11. or.).

VI.2. Langile gastuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (12. or.).

VI.3. Aurreko urteetako gomendioen betetzea (12. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2022rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarreanean, Kontseiluaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzi finantzarioa eta legeria betetzeari buruzkoa ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarren atalean Kontseiluaren aurrekontu- eta finantza-egoerari buruzko konklusioak eta gomendioak jaso ditugu.

Azterketa lana 2022ko maiatzaren amaieran egin du auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Kontseiluko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. NAFARROAKO KONTSEILUA

Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 28. ter artikuluan esaten den moduan, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da, eta bere funtzioak autonomia organiko eta funtzionalarekin betetzen ditu, bere objektibotasun eta independentzia bermatze aldera.

Bere eginkizunetan diharduela, ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du eta abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu, bai eta Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea ere bere helburuak betetzerakoan.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 2. artikuluan xedatzen denez, Nafarroako Kontseilua bost kidek osatuko dute, izen aitortua dutenak eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatzen ditu Kontseiluko kideak, zortzi urterako, eta ezin dira berriz hautatu. Gaur egun, luzapenean daude bost kideetatik hiru.

Nafarroako Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseiluko kideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria. Nafarroako Kontseiluko kideen ordainsariak dieta-sistema baten bidez ordaintzen dira eta kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Kontseiluari 2021ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 8/2016 Foru Legea, ekainaren 9koa, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 13/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 20/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantzen eta legezotasunaren fiskalizazio bat egin da Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuez, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2021eko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Kontseiluaren 2021eko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

- Aurreko urteetako gomendioen betetzea.

Lanaren norainokoa Nafarroako Kontseiluaren 2021eko urteko kontuak dira, kontabilitateko egoera-orri hauek dituztenak:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

#### **IV. IRITZIA**

Nafarroako Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

##### ***Nafarroako Kontseiluaren erantzukizuna***

Nafarroako Kontseiluko lehendakariaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, eta Osoko Bilkurari aurkeztu behar dizkio onesteko. Kontseiluko legelariak prestatzen ditu kontuak, eta irudi zehatza eman behar dute Kontseiluaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontuaren gauzatzeari buruz. Hori guztia egin behar du finantza-informazioaren arloan aplikatzekoa den arau-esparruari lotuta eta beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolaren pean, urteko kontuak behar bezala prestatu eta aurkez daitezten, iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik gabe.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Nafarroako Kontseiluko lehendakariak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

##### ***Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna***

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera; zehazki, ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plan-gintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela urteko kontuetako oker materialen arriskuen balorazioa, oker horiek iruzur edo akatsaren ondoriozkoak direnean nahiz legeen urratze muntadunen ondoriozkoak direnean.

Arriskuaren balorazio horiek egiterakoan, auditoreak aintzat hartzen du entitateak urteko kontuak egin ahal izateko muntadun den barne-kontrola, inguruabarren arabera egokiak izanzen diren auditoretza prozedurak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emate aldera.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, ebaluatzea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantza-auditoretzari eta legeen betetzeari buruzko gure iritzia funtsatzeko.

#### IV.1. FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2021eko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Nafarroako Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2021eko abenduaren 31n. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

#### IV.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako Kontseiluaren 2021eko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

**V. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2021EKO URTEKO KONTUEN LABURPENA****V.1. 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

## Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

	Behin-behineko aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	425.382	425.382	381.041	381.041	90
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	10.449	10.449	37
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>453.382</b>	<b>453.382</b>	<b>391.491</b>	<b>391.491</b>	<b>86</b>

## Gastuak, kapituluz kapitulu

	Behin-behineko aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Betetakoa (%)
1. Langile gastuak	205.012	205.012	150.781	150.781	74
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	220.370	220.370	122.770	122.770	56
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	10.449	10.449	37
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>453.382</b>	<b>453.382</b>	<b>284.000</b>	<b>284.000</b>	<b>63</b>

**V.2. 2021EKO AURREKONTU-EMAITZA**

Kontzeptua	2020				2021			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehargarbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	381.346	245.666		135.680	391.491	284.000		107.491
b. Kapital-eragiketak	0	0		0	0	0		0
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	381.346	245.666	0	135.680	391.491	284.000	0	107.491
d. Finantza-aktiboak	0	0		0	0	0		0
e. Finantza-pasiboak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0		0	0	0		0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (I=1+2)	381.346	245.666		135.680	391.491	284.000		107.491
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
<b>Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)</b>				<b>135.680</b>				<b>107.491</b>



## V.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINA 2021EKO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2020	2021
1. (+) Funts likidoak	139.368	112.265
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	82	82
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	82	82
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	3.770	4.856
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	3.770	3.770
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	0	0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	135.680	107.491
II. Finantzaketa atxikiaren gaidikina	0	0
III. Kobrantza zalantzarriko saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	135.680	107.491

## V.4. 2021EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

Aktiboa	2020	2021
<b><i>Ibilgetu garbia</i></b>	<b>11.988</b>	<b>18.045</b>
Altzariak eta tresneria	1.221	1.046
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	160	9.927
Irudi korporatiboa	10.607	7.072
<b><i>Aktibo zirkulatzailea</i></b>	<b>139.450</b>	<b>112.347</b>
Diruzaintza	139.368	112.265
Epe laburreko zordunak	82	82
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>151.438</b>	<b>130.392</b>

Ondare garbia eta pasiboa	2020	2021
<b><i>Ondare garbia</i></b>	<b>147.668</b>	<b>125.536</b>
Ekitaldiko emaitza	135.679	107.491
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteke daudenak	11.989	18.045
<b><i>Epe laburreko hartzekodunak</i></b>	<b>3.770</b>	<b>4.856</b>
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	3.770	4.856
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>151.438</b>	<b>130.392</b>

## V.5. 2021EKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

Zor	2020	2021	Hartzeko	2020	2021
Langile gastuak	148.399	150.781	Diru-sarrera finantzarioak	0	0
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	95.870	122.770	Transferentzia arruntak	379.949	381.041
Amortizazioa	4.441	4.393	lbilgeturako dirulaguntzen emaitzen egozpena	4.441	4.393
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	135.680	107.491			
<b>Guztira</b>	<b>384.390</b>	<b>385.434</b>	<b>Guztira</b>	<b>384.390</b>	<b>385.434</b>

## V.6. 2021EKO ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

Deskribapena	Sortutako ondarea	Beste ondare-gehikuntza batzuk	Guztira
Ondare garbia 2020ko ekitaldiaren bukaeran	135.679	11.988	147.667
2021eko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak	-28.189	6.057	-22.132
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	107.491	-4.392	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-135.680		
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk		10.449	
<b>Ondare garbia 2021eko ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>107.491</b>	<b>18.045</b>	<b>125.536</b>

## V.7. 2021EKO ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2020	2021
<b>I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
<b>A) Kobrantsak:</b>	<b>248.642</b>	<b>257.694</b>
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	248.642	257.694
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
6. Beste kobrantza batzuk	0	0
<b>B) Ordainketak:</b>	<b>-197.784</b>	<b>-274.348</b>
9. Hornikuntzak	34.938	37.526
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	81.069	101.142
13. Beste ordainketa batzuk	81.777	135.680
<i>Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</i>	<i>50.858</i>	<i>-16.654</i>
<b>II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
<b>C) Kobrantsak:</b>		<b>0</b>
1. Inbertsio errealak saltzea	0	0
<b>D) Ordainketak:</b>	<b>-1.396</b>	<b>-10.449</b>
4. Inbertsio errealak erostea	1.396	10.449
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</i>	<i>-1.396</i>	<i>-10.449</i>
<b>VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN</b>		
<b>HANDITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V)</b>	<b>49.461</b>	<b>-27.103</b>
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	89.907	139.368
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	139.368	112.265

## VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Nafarroako Kontseiluaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### VI.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

- Kontseiluaren hasierako aurrekontuak 453.382 euroko gastuak eta diru-sarrerak zeuzkan; zenbateko hori behin betiko aurreikuspenekin bat dator.

- Kontseiluaren aitortutako betebeharrak 284.000 euro egin dute, betetze-maila ehuneko 63koa izan da, eta horien ehuneko 100 ordaindu da. 2021. urtearekin alderatuta, ehuneko 16 egin dute gora, batez ere ondasun arruntetan eta zerbitzuetan gastuek izandako igoeraren ondorioz.

- Aitortutako eskubideek 391.491 euro egin dute, haien betetze-maila ehuneko 86koa izan da eta guztiak ordaindu dira. Diru-sarrera horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotako transferentzietatik datoz. Horietatik 381.041 euro gastu arruntak finantzatzera bideratu dira, eta 10.449 euro, berriz, inbertsio-gastuetarako kapital-transferentziak izan dira.

- Kontseiluak 2021ean eta 2020an gastatutako 100 euro bakoitzetik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honako hauen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	2020	2021	Finantzaketa-iturria	2020	2021
Langileak	60	53	Transferentzia arruntak	99	97
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	39	43	Kapital-transferentziak	1	3
Inbertsioak	1	4			
	100	100		100	100

- Nafarroako Kontseiluak, araudi indardunari jarraituz, 107.491 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren frogatzen den moduan, bat dator aurrekontuko superabitarekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	391.491
Gastuak, guztira	284.000
Aurrekontuko superabita	107.491
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	107.491

## VI.2. LANGILE GASTUAK ETA ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

- Nafarroako Kontseiluko langileen gastuak 150.781 eurokoak izan dira 2021ean, 2020an baino ehuneko bi gehiago. Nafarroako Kontseiluaren 2021erako plantilla organikoa bi lanpostuk osatuta dago: legelari bat, funtzionarioa (lanpostua hutsik dago), eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2021eko abenduaren 31n, Nafarroako Kontseiluan bi langilek egiten dute lan: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- 2021ean, Nafarroako Kontseiluak 41 irizpen eman zituen; 2020an baino 11 gehiago. Kontseiluko kideei irizpen horiek egiteagatik ematen zaizkien ordainsariak 85.243 euro egin dute, eta bertaratze-dietek, berriz, 16.985 euro egin dute; guztira, aurreko ekitaldian baino ehuneko 35 gehiago. Txostenak prestatzeagatik ordainsariak zuzen egotzen zaizkio gastuetako 2. kapitulari.

- Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastuak 122.770 euro egin zuten 2021ean; 2020an baino ehuneko 28 gehiago. Aldaketa horren arrazoia da 2020ko gastua txikiagoa izan zela COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

## VI.3. AURREKO URTEETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Gomendio hauek indarrean jarraitzen dute:

- *Nafarroako Kontseiluko plantilla organikoan dagoen lanpostu hutsa betetzeko deialdia egitea indarreko araudiari jarraituz, sortu zenetik zerbitzu eginkizunetan bete baita.*

- *Langile gastuen 1. kapitulan erregistratzea Kontseiluko kideek txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik jasotako konpentsazioei buruzko zenbatekoak, norberaren lanetik zuzenean eratorritako kontraprestazioak baitira.*

- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako aplikazio informatiko bat ezartzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko ekainaren 22an  
Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador